

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea Bitorianoko 2 poligonoko 147, 148 eta 149 lurzatiien egikaritze unitatearen hirigintzako jarduketa programari, hirigintza hitzarmenari eta birpartzelazio proiektuari

Alkatearen 2021eko irailaren 28ko 270 zenbakiko Dekretuaren bidez, erabaki da behin betiko onespena ematea 2 poligonoko 147, 148 eta 149 lurzatiek osatzen duten Bitorianoko 4 egikaritze unitatearen hirigintzako jarduketa programari, hirigintza hitzarmenari eta birpartzelazio proiektuari.

Hirigintzako jarduketa programaren edukiaren laburpena:

– Eremua: Bitorianoko 2 poligonoko 147, 148 eta 149 lurzatiek osatzen duten UE-4 egikaritze unitatea.

– Azalera: 6.339,13 m².

– Gehienezko azalera eraikigarria: 2.535,65 m².

– Egikaritze araubidea: pribatua, eta jarduketa sistema: hitzarmena.

– Urbanizazio lanen aurrekontua: 42.217,00 euro.

– Birpartzelazio proiektua aurkezteko epea: aurkeztuta.

– Urbanizatze lanak gauzatzeko epea: gehienez 12 hilabete.

– Eraikitze lanak egiteko epea: gehienez 8 urte, urbanizatze lanak amaitzen direnetik aurrera.

Onespen dekretuaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio, hilabeteko epean, eman duen organoari. Bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzien dagokion epaitegian; horretarako, bi hilabeteko epea izango da.

Murgia, 2021eko urriaren 5a

Alkate-lehendakaria

UNAI GUTIÉRREZ URKIZA